

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezoroekiko erlazio on bat izatea funtsezkoa da proiektua aurrera atera dadin.

Gure enpresa bezeroekin izango duen harremana autozerbitzua izango da. Bezero berriak erakartzeko propaganda banatuko dugu, eta iragarkiak jarriko ditugu internetik.

Bezoroekiko erlazio ona izateko funtsezkoa da produktutik zer etekin aterako duten bezeroek garbi uztea.

Bezoroekiko erlazio ona izateko segimendu bat egingo dugu aplikazioaren erabiltzaileen artean. Ea haien beharrekin bat egin duen galdetuko diegu, eta espero zutenaren antzekoa den ala ez; baita nola hobetu genezake ere galdetuko diegu erabiltzaileei. Ekintza hau bezeroarekiko erlazioa elikatze eta sustatzeko era bat da, non bai bezeroak bai sortzaileok irabazten dugu. Gainera, iruzkin hauek funtsezkoak izan daitezke etorkizuneko bezeroenganako zerbitzua hobetzeko.

Bestalde, arazo bat izanez gero, gurekin harremanetan jartzera gonbidatzen diegu gure kontsumitzaileei. Honekin batera, komunikatzeko hainbat bide jartzen ditugu kontsumitzaileen eskutara: posta elektronikoaren bidez, on-lineako txata, foro espezializatuen...

Gure enpresarentzat oso garrantzitsuak dira baloreak; ondorioz, zintzotasuna eta konfidantza asko zaintzen ditugu. Komunikazio on izan dezagun, gure bezeroen konfiantza irabaztea beharrezkoa da ere. Esaten duguna betetzen saiatu behar dugu: bete ezin dugun hura ez hitzematea eta hitzematen dugun hura betetzea.

Laburbilduz, hainbat inkesta eta galdera egingo ditugu noizean behin ea erabiltzaileak pozik dauden gure aplikazioarekin. Gainera, premium izateko aukera dagoenez, jakin dezakegu CCMagicekin gustura dauden edo ez.